



Politika
neoliberalak



esade

Lobbyak



¿Qué hay detrás de la
Orden Foral de Jornadas?



GURE ESKUBIDEAK BORROKA DITZAGUN!

03

EDITORIALA

04

0-3 - 2 URTEKO GELAK

Nafarroa Garaiko Hezkuntza Publikoan lehen indar izatera pasatu gara

05

FAMILIA LEGEA

¡El Gobierno de Navarra nos está negando nuestros derechos!

06

PISA

PISA, ebaluazioa hezkuntzan politika neoliberalak behartzeko tresna denean

07

ASUNTOS PARTICULARES

Días de asuntos particulares

08

PAI

El PAI se desmantela en España pero se atrinchera en Navarra

09

KIDEGOEN PAREKOTZEA/MASTERRA

Hacia el cuerpo docente único

10

EAE

Haurreskolak Partzuergoko doakotasunaren ondorioek aurrekontuetan islada izan behar dute

12

LAN OSASUNA

Haurdunaldia eta bajak Noiz hartu baja? Zergatik hari eman diote eta niri ez?

13

IDAZKARITZA FEMINISTA

Indarkeria bikarioa

14

LGTBIQ+

Gabon onak?

16

EILASTASUNA

Escuelita libre, Maputxe Herria

17

MUGIMENDU SOZIALAK

Zorionak errigora! – Tortura. Erreparaziorako urratsak

18

HITZ ETA LAPITZ

19

HAN-HEMENKA

Nor – Ez dadin bizitza eten – Gora Euskal herrietsak – KARENA

¿Qué hay detrás de la Orden Foral de Jornadas?

Comenzamos el año no solo no habiendo visto ni una sola de las necesidades acuciantes del sistema educativo navarro cubiertas, sino teniendo que empezar un largo y tedioso proceso de votaciones ya adulteradas de antemano.

A pesar de las movilizaciones llevadas a cabo por familias, direcciones, profesorado y sindicatos docentes (esto es, la comunidad educativa al completo, ya que tampoco el alumnado quiere ver extendida su jornada escolar), el Departamento de Educación ha sacado adelante la Orden Foral de jornadas escolares ante el asombro de la mayoría de la sociedad.


Cabe preguntarse entonces **qué hay detrás** de la aprobación de un texto rechazado por las y los usuarias del servicio, cuál es el afán de un Departamento que se empeña en volver a tiempos superados en otras comunidades y desafiar la lógica de una sociedad postpandemia que ha venido para quedarse.

Mucha gente piensa que el **motivo es puramente economicista**, en un intento por mantener el negocio que generan comedores, transporte escolar y extraescolares de pago, a pesar de que cuesta creer que un Departamento de Educación supuestamente preocupado por el bienestar del alumnado quiera que niñas y niños soporten jornadas de trabajo más largas e intensas que las de sus propios progenitores.

Hay quien también cree que el interés es el de **contentar a entidades generadoras de opinión volcadas en intereses económicos** como la OCDE (organización que sistemáticamente aboga por reducir las pensiones, elevar la edad de jubilación, rebajar el salario mínimo y aumentar las horas de trabajo) o la ESADE (universidad privada de élite creada por los Jesuítas y que oferta másteres por un importe de 67.000 euros al año). La cuestión es que al Departamento se le ha visto tanto el plumero que ha llegado incluso a enlazar las "investigaciones" de estos agentes en la web del proceso, como si no supiésemos que estos informes neoliberales pretenden defender de forma nada soterrada los intereses del capital y la oligarquía dominante.

Otras personas se decantan por la opinión de que es una forma de volver a poner en la probeta del **enésimo experimento educativo a nuestra comunidad**, en un intento de un Consejero más preocupado por hacer méritos para acercarse a un ministerio con los deberes hechos que por defender los derechos de la infancia al tiempo de trabajo delimitado, al descanso, el ocio o el disfrute en familia.

Sea como fuere, la cuestión es que esta Orden Foral representa una enorme **irresponsabilidad**; un **anacronismo** en la sociedad del siglo XXI en la que se aboga por reducir la jornada laboral, promover el cuidado físico y emocional, la conciliación y el desarrollo íntegro de la persona; una **ilegitimidad** en el trato hacia el profesorado sobrecargado que debe tener derecho a decidir sobre el desarrollo global del alumnado y su propia jornada de trabajo; una **nimiedad** cuando las leyes verdaderamente necesarias ahora son otras como una Ley de Financiación de la Escuela Pública que baje los ratios y aumente el personal de apoyo al alumnado y, por último, una **fuentes de ansiedad** para alumnado, familias y profesorado. ■



Doakoa bai, unibertsala eta publikoa ez



Azken aldi honetan berriro ere 0-3 zikloa erdigunera etorri zaigu.

Alde batetik, estatu mailan PSOE eta Sumar-ek egindako itunaren berria dugu, bertan 0-3 zikloaren unibertsaltasunaz hitz egiten da, zikloaren *inklusioaz hezkuntza sistemaren barnean*, baina itun horren bukaeran aurkitzen dugun konpromezu bakarra da legegintzaldiaren amaieran **2 urteko haurrek** hezkuntza publikoan sartzeko aukera unibertsala izango dutela.

Bestetik Nafarroan, Carlos Gimeno jaunak, nafar gobernuko hezkuntzako kontseilariak, Nafarroako Komunitateko haur eskolak doakoak jartzeko asmoa helarazi du. Berri ona izan beharko luke hau baina dagoen konpromezu bakarra da eskaintza doakoa izatearena baina ez unibertsala, beraz eskaintzak eskarirako nahikoa izan gabe jarraituko du.

Guzti honekin ezaguna egiten zaigun gai bat etorri zaigu burura, 2 urteko gelak hain zuzen ere.

Izan ere, duela urte batzuk jada Carlos Gimeno Nafarroako hezkuntza sistemako bigarren zikloan 2 urteko gelak ezartzeko asmoa adierazi zuen. Hau 2022an, 0-3ko plataformak deituriko grebari eta egin zen borrokari esker gelditzea lortu zen.

Alabaina, nahiz eta hau lorpen haundia izan, argi zegoen ez zela behin betikoa izanen, eta azken berriekin gai hau berriro mahai gainera etorri zaigu.

Azken egunetako adierazpen hauek sakonago aztertzen baditugu zenbait kezka suertatzen zaizkigu.

Lehenengoa honakoa da: haur hezkuntzako lehenengo zikloaren barruan adin bakarreko haurrak hartzen dira kontutan, 2 urteko haurrak hain zuzen. Alde batetik honek berriro ere agerian uzten du gobernuaren aldetik ziklo honekiko utzikeria,

izan ere, gainontzeko adinetako haurrak baldintza prekario eta gestio ez egonkor baten menpe jarraituko zuten egoten, hezkuntza publiko eta unibertsal batetara gehitzeko eskubiderik gabe.

Bestetik, askotan esan den moduan, zikloa fragmentatzea akatsa da, haurtzaroaren beharrei erantzuteko zikloa bere osotasunean mantendu eta haur eskolen barne egon behar da, hemen baitaude ziklo hau aurrera eramateko baliabide estruktural egokienak eta etapa honetan adituak diren profesionalak.

Honekin batera, beste galdera bat etortzen zaigu burura, 2 urteko gelak aurrera ateraz gero zeintzuk izango dira langileak? Ez dezagun ahaztu, nahiz eta haur eskola batzuk Hezkuntza Departamentuaren barne sartu diren, gobernuarentzat "personal no docente" izaten jarraitzen dutela. Beraz bi urteko haurrak eskolen barruan sartuz gero, 0-3ko hezitzaileek bertan lan egiteko aukera izango lukete edo hezkuntzako kontratazio zerrendetako pertsonak (maisu-maistrak) izango lirake kontratatuak?

Amaitzeko, beste kezka bat ere suertatzen zaigu: instituzioen barruan 2 urteko haur hauen sarrera nolakoa izango den. Izan ere, ditugun aurrekariak ikusita, bai Nafarroan bai beste komunitateetan, uste dugu betiko moduan egingo dutela, haurrak hezkuntza sisteman sartuz beraientzako egokiak ez diren espazioetan, baliabide nahikorik gabe, gehiegizko ratioekin eta etapa honetan aritzeko espezializatuak dauden profesionalik gabe.

STEILASen argi dugu ekitatea egoteko ez dela nahikoa doakotasunarekin; kalitatezkoa, unibertsala, euskalduna eta kudeaketa publiko zuzeneko izango duen zikloa behar dugula.

Ez dezagun 0-3ko haurren duintasunarekin jokatu. ■

Seguiremos peleando hasta que tanto en Navarra como a nivel estatal, entiendan que lo que se pide y se necesita es el respeto hacia el ciclo, hacia las criaturas y hacia la infancia en general. Hasta que entiendan que lo que tienen entre manos es algo muy serio.





¡El Gobierno de Navarra nos está negando nuestros derechos!

La llamada Ley de Familias entró en vigor en junio, pero no se nos ha aplicado todavía al personal al servicio de la administración pública navarra, únicamente el personal laboral y de la empresa privada está disfrutando de las mejoras.

Permiso parental	no retribuido de ocho semanas para el cuidado de hijo, hija o menor acogido.
Permiso especial	por fuerza mayor de hasta 4 días por motivos familiares urgentes relacionados con familiares o personas convivientes.
Cinco días de permiso	por enfermedad por accidente o enfermedad grave, hospitalización o intervención quirúrgica sin hospitalización del cónyuge, pareja de hecho o pariente hasta el segundo grado.
15 días de permiso	por pareja de hecho.
Adaptación de jornada	por razones de conciliación.

Desde el Gobierno de Navarra nos repiten **que las mejoras introducidas en el Real Decreto-Ley 5/2023, de 28 de junio, cuyo artículo 128 modifica el texto refundido de la Ley del Estatuto Básico del Empleado Público, no son de aplicación al personal al servicio de la Administración de la Comunidad Foral de Navarra** ya que como ha reconocido el Tribunal Constitucional, la Comunidad Foral de Navarra **ostenta competencia exclusiva e histórica en materia de Función Pública** en virtud del artículo 49.1b) de la Ley Orgánica 13/1982, de 10 de agosto, de Reintegración y Amejoramiento del Régimen Foral de Navarra –LORAFNA–, que recoge: "En virtud de su régimen foral, corresponde a Navarra la competencia exclusiva sobre el régimen estatutario de las/os funcionarias/os públicos de la Comunidad Foral, respetando los derechos y obligaciones esenciales que la legislación básica del Estado reconozca a las/os funcionarias/os públicos."

No entendemos ni compartimos cómo un gobierno progresista no incluye de urgencia en sus normativas dichas mejoras para sus trabajadoras públicas y sigue mirando a otro lado en este tema 5 meses después de su implantación a nivel estatal. ■

¡Seguiremos luchando!
desde nuestros servicios jurídicos
y en las mesas de negociación
porque estas mejoras para
la conciliación de las y los docentes
sean implantadas cuanto antes
en la educación navarra

Borrokan jarraituko dugu,
gure zerbitzu juridikoen bidez
zein negoziazio-mahaietan,
kontziliaziorako hobekuntza
hauek Irakasleoi aplikatzeko
lehenbailehen Nafarroako
hezkuntza publikoan!

PISA, ebaluazioa hezkuntzan politika neoliberalak behartzeko tresna denean



Duela hilabete eskax azkeneko PISA emaitzak iragarri ziren komunikabide guztietan. Bertan Euskal Herriko emaitzak aztertzen ziren beste askoren artean, eta badirudi datuak ez direla ospakizunetan hasteko modukoak. Nafarroako eta EAeko batzbesteko emaitzek behera egin dute 2012. urtetik hona. Zeinek du honen ardura?

Lehenengo eta behin PISA froga sortu zuen erakundeari begira jarri behar gara: ELGA (OCDE), Ekonomia Lankidetzeta eta Garapenerako Antolakundea. Erakunde hori sortu zen politika neoliberalak mundu osoan ezartzeko eta argi dago geroz eta entzute eta zilegitasun gehiago irabazten ari dela. Ustez, bere helburu nagusia hainbat herrialdetako ikasleen errendimendu akademikoa ebaluatzea eta alderatzea da, irakurketan, matematikan eta zientzietan (Gaitasun artistikoa, gaitasun kritikoa, elkartasuna, etab. ez omen dira garrantzitsuak.) Zehazki, ikasleek "mundu errealeko" egoeretan eskuratutako eza-gutzak eta trebetasunak aplikatzeko duten gaitasuna ebaluatzen duela aldarrikatzen du antokunde honek.

Proba hauek 3 urtetik behin egiten dira. 15 urte bete dituzten ikasleen lagin bat hartu egiten da (laginketa egiteko irizpideak ez dira publikoak) herrialde bakoitzean, ikasturtea errepikatu duten edo ez kontuan hartu gabe. Datu bezala, Nafarroako errepikatzaileen portzentaia % 23,1 da. Beraz, esan genezake lagin horretako askok ez dituztela adinari dagozkion edukiak jaso. Emaitzek ELGA erakundearen parte diren herrialdeen arteko konparaketa egiteko balio dute, "ranking" ankerrak sortuz, eta geure inguruan egon den beherakada sistematikoa kontutan hartuz, fokua irakasleengan eta egun erabiltzen diren korrante pedagogiko eta metodologikoetan jarri da. Eztabaida orduan "proiektu eta pedagogia aktiboak betiko klase magistralen aurka" jartzen da, irakasleok eta eskolek dagoeneko presio nahikorik izango ez bagenu jada.



Baina eztabaida hutsal horrek beste eztabaida mamitsuago bat uzten du alboratuta, non hezkuntza sistemak jasotzen duen finantziario eskasa, pribatizazioa, segregazioa, eskoletan ematen ari den lidergo eredu gerentziala, ratio gehiegizkoa, klaustroetan ematen den demokrazia eta eztabaida eskasa, eta geroz eta okerragoak diren kondizio laboralak albo batera uzten diren. Eta hauek dira hain zuzen ere arreata jartzea eskatzen duten aldagaiak. Ezinbestekoa da ziurtatzea ikasleek kalitatezko hezkuntza jasotzeko duten eskubidea, elitismoa atzean utziz. Bereziki inklusioa ahalbidetuko duen hezkuntza sistemari behar dugun denontzat, hezkuntza sistemak pairatzen duen dibisio eta presioak gainditzeko baldintzak jarri: Hezkuntzan inbertsio handiagoa, irakasleen lan baldintzen hobekuntza, ikasle zaurgarriari eta haien familiei laguntzeko baliabide profesionalak, kalitatezko eskolaz kanpoko jarduerak, eta ikasleen segregazioari konponbidea, besteak beste.

Horretarako ez diogu berrikuntza pedagogikoari ateak itxiko, baina bide hau ikastetxeetako klaustroetan eta hezkuntza komunitate sendoetan eraiki beharko da; eztabaida pedagogikoa medio, koordinatzeko denbora gehiago eskainiz, burokrazia eta lan zama gutxituz.

Ezinbestekoa izango da gainera aliantzak sortzea: hezkuntza sindikalismoaren, familien eta ikasleen ordezkarien artean. Denon artean PISA bezalako probek sortzen duten manipulazio soziala eta beste garaietako hezkuntza autoritariora itzultzeko nostalgiari aurre egin behar diogu: desberdintasunak errespetatzen duen pedagogia baten alde, errealtatea aztertu eta kritikoki pentsatzen lagunduko duena, eta beti ere, elkarlana sustatuz. Azkenik, hezkuntzatik haratago ere doazen aliantzak behar ditugu, eskolak ezin baititu munduko arazo guztiak konpondu, ezta sistemaren egiturazko desberdintasunak bere kabuz irauli ere. ■

La evaluación como instrumento de coacción neoliberal en la educación

En conclusión, tras haber leído todos los puntos de mejora planteados en el informe de la OCDE, conociendo los objetivos de esta organización para implantar políticas neoliberales, nos parece preocupante que se haya puesto el foco en el tipo de jornada escolar, el auge de metodologías alternativas o la productividad del profesorado, por encima de todos los aspectos citados en este artículo: mayor inversión, mejora de la profesión docente, recursos profesionales para acompañar al alumnado vulnerable y a sus familias, actividades extraescolares de calidad y gratuitas, seguimiento y evaluación de las actuaciones puestas en marcha y la peligrosa segregación del alumnado.

PISA, ebaluazioa hezkuntzan politika neoliberalak behartzeko tresna denean

Días de asuntos particulares

Los días por asuntos particulares son un derecho de todo el personal de la administración navarra.

Las docentes no estamos obligadas a explicar el motivo, la dirección es quien debe argumentar la negativa en caso de no poder concederlos.

En la medida de lo posible, recomendamos solicitarlo con antelación para una mejor organización del centro.

Se contabilizan por años naturales (hasta el 31 de enero) y se recogen en el EDUCA.

Existe la posibilidad de disfrutarlos por horas (descuentan 1 hora y 13 minutos por cada hora solicitada). También se pueden disfrutar antes y después de festivos o vacaciones, e incluso días seguidos.

Dependiendo de la antigüedad, pueden ser más de 3 días (18 años antigüedad +2 días, 24 años +3 días, 27 años + 4 días, 30 años +5 días, 33 años +6 días, 36 años + 7 días). ■

**NORBERE AFERETAKO EGUNAK
IRAKASLEON ESKUBIDEA DIRA.**

GARAIZ ESKATU ETA ERABILI!

**LOS DÍAS DE ASUNTOS PARTICULARES
SON UN DERECHO
DEL PROFESORADO.**

¡SOLICÍTALOS CON TIEMPO Y ÚSALOS!





El PAI se desmantela en España pero se atrincheró en Navarra

El pasado diciembre la Comunidad de Madrid anunció, a bombo y platillo, que la asignatura de Historia dejaría de impartirse en inglés a partir del curso 2024-25, a fin de evitar una rebaja en la calidad de los contenidos. De hecho, existe un plan para recuperar la vehicularidad del castellano en todas las asignaturas troncales. En Murcia ocurre algo parecido, ya que su consejera de educación recomienda no impartir matemáticas en inglés, y ha manifestado que los centros educativos no estarán obligados a impartir ciencias naturales en inglés, ya que también puede causar problemas al alumnado.

Desde 2018 se ha producido una salida muy significativa de centros del programa bilingüe castellano-inglés de escuelas de Castilla-La Mancha y Castilla y León, tras comprobar las mismas deficiencias que en Madrid y Murcia. La salida del programa se efectúa de un curso para otro, y contrasta mucho con el penoso proceso de 9 años impuesto a las escuelas en Navarra.

El PP (también el PSOE) era muy consciente de los perjuicios provocados por este programa, pero les convenía, para engañar a las familias con una “innovación” que supuestamente ponía al alcance de las clases populares el aprendizaje del inglés propio de los centros de élite, disimulando los recortes que se estaban produciendo en el sistema de educación público. Por otra parte, la introducción del inglés era la coartada perfecta para torpedear los modelos de inmersión lingüística en los territorios con lenguas diferentes del castellano, como en Baleares, Valencia, Galicia o Navarra.

El PP ha decidido soltar lastre con los programas bilingües, una vez realizado todo el daño posible al sistema público de educación y por el creciente descrédito. Ya no necesita de estos programas para atacar al catalán o al gallego. Los gobiernos de PP y VOX en Baleares y Valencia arremeten contra el catalán sin tapujos, y no precisan de ningún subterfugio para realizarlo. Además, el *deep state* español está llevando a cabo un ataque contra el catalán y el euskera que se manifiesta en una infinidad de sentencias que también afectan a la inmersión lingüística en Catalunya.

En el caso de Navarra, Yolanda Barcina expresó claramente el objetivo de la implantación del PAI: frenar la matriculación en euskera, promocionando el inglés. Contrariamente al desmantelamiento de los programas tipo PAI que está sucediendo en otras CCAA, en Navarra los seguidores de la política de Barcina, PSN, UPN, PP y VOX, se atrincheran a través de la Ley del PAI y de las oposiciones derivadas de esta, para implantar un nuevo “pseudocuerpo foral” de profesorado, fabricando hasta 6 listas de contratación en cada especialidad, que agrava aún más el apartheid lingüístico padecido en las listas de contratación desde 1992. ■

Noiz arte euskarazko irakaskuntza zokoratua Nafarroa Garaian?

PAIk lortu zuen A eredia nabarmen gutxitzea eta D ereduaren hazkundera gelditzea. Matrikulazioaren jaitsierak eta aldaketa demografikoak kolokan jartzen dituzte D ereduaren lorpenak. Euskaltzaleak hein handi batean tontolotu ditu gobernu honen ustezko “aurrerakoitasunak” eta, bitartean, bere horretan dira UPNren garaiko politika euskarafobikoek. *Aski da!*



HACIA EL CUERPO DOCENTE ÚNICO

En enero del 2021 entró en vigor la nueva ley de educación, la LOMLOE, y entre otras cosas trajo la necesidad de integrar al Profesorado Técnico de Formación Profesional en el cuerpo de Secundaria. Se abrió así la vía para que todo el profesorado de Formación Profesional se incluyera en un mismo cuerpo, con su correspondiente equiparación de salario y cotización, dando cabida a la histórica reivindicación del PTFP de "mismo trabajo, mismo salario".

No obstante, lo que parecía un avance en derechos de todo el profesorado de FP gracias a la integración en un solo cuerpo no fue así, ya que este profesorado pasó de estar dividido en dos cuerpos a estar repartido en tres (Secundaria, PTFP a extinguir, y Especialistas en Sectores Singulares). Es verdad que hay personas que han logrado acceder al cuerpo de Secundaria, pero el Ministerio de Educación y el Departamento de Educación han dejado en el camino a muchas personas, las cuales han sacado adelante la Formación Profesional durante décadas, y en algunos casos su futuro es incierto. Desde **STEILAS** vemos necesaria una solución a esta situación de desigualdad entre las personas trabajadoras que tienen las mismas funciones (FCT, tutorías, jefaturas de departamento, etc.) en los centros de FP.

Con ese mismo enfoque, una reivindicación histórica de nuestro sindicato ha sido la de crear un único cuerpo docente en el que se integre a todo el profesorado desde infantil hasta secundaria, incluyendo FP, conservatorio, artes y escuelas de idiomas; cuerpo encuadrado en el nivel o grupo A.

Las razones para dividir al profesorado en distintos cuerpos docentes ha sido que los requisitos de ingreso eran diferentes en unos cuerpos y en otros: titulación requerida, formato de oposición, etc. Pero desde que entró en vigor el Plan de Bolonia, desaparecieron las licenciaturas y las diplomaturas, y todas las titulaciones pasaron a ser grados. Creemos que este es un punto de partida, ya que se elimina la diferencia de la titulación requerida para el ingreso a la función docente, y a esto le tiene que seguir el reconocimiento del nivel A para todas por igual.

Es necesario seguir dando pasos hacia el cuerpo docente único, un cuerpo que reconozca la importancia de todas y todos los docentes por igual. Como ocurre en la Formación Profesional, toda persona docente tiene las mismas funciones y misma labor, aunque sea en diferentes etapas; y esa labor docente tiene la misma importancia en el desarrollo académico y personal del alumnado. ■

Desde **STEILAS** vemos necesaria una solución a esta situación de desigualdad entre las personas trabajadoras que tienen las mismas funciones (FCT, tutorías, jefaturas de departamento, etc.) en los centros de FP.

Irakasle orok egiten dugun lana berebiziko garrantzia du ikasleen garapen akademiko eta pertsonalean. Maila ezberdinetan bada ere, funtzio berak bete behar ditugu (tutoretzak, koordinazioak, formakuntzak, ebaluazioak, etab), horregatik irakasle guztiak hartuko dituen A mailako kidegoa sortzea ezinbestekoa ikusten dugu; are gehiago irakaskuntzan aritzeko eskatzen diren unibertsitate titulazio guztiak graduak direla ikusita.



Haurreskolak Partzuergoko doakotasunaren ondorioek aurrekontuetan islada izan behar dute

2023-2024 ikasturteak Haurreskolak Partzuergoaren doakotasuna ekarri du. **STEILAS** sindikatuak joan den azaroan egindako prentsaurrekoan salatu zuen bezala, doakotasun horrek familia eskaeren hazkundera ekarri du baina lanpostuak sortzeko beharrak erantzunik gabe jarraitzen du.

Hezkuntza sailak Mahai Negoziatzailean alde sozialari egin zion proposamena hurrengo bi urteetako familien matrikulazio eskaeren azterketa egitea izan zen.

Urte horietako matrikulazio eskaeretan hazkundera balego, lanpostu berriak sortuko lirateke.

Eta bitartean zer? **STEILAS** sindikatuak argi dauka honek ez diola erantzuten egungo arazoari, baliabideak gaur eta orain behar ditugulako.

2024ko aurrekontuetako datuek diote urte horretan 8.759 ikaspostu egongo direla. 2023ko irailean 4.819 hurrek eman zuten izena Haurreskolak Partzuergoan (aurreko ikasturtean baino ia 800 ikasle gehiagok). Hilabete hasiera guztietan matrikularen hazkundera aurreikusita (4.000 haur gehiago egoteko tokia badago) baliabide pertsonalak handitzea ezinbestekoa da.

Baina azaroan, behar berriei erantzuteko hiru hilabeteetan 137 kontratu berri gehiago egiteko beharra egongo zela esan zigun gerenteak, eta lanpostuen zerrenda jada beteta zegoenez, behin-behineko kontratuak soilik egin ahal izango zituztela.

Horren aurrean **STEILAS** sindikatuaren erantzuna argia eta zehatza izan zen: **aurrekontuetan islada izan behar duten lanpostu estruktural gehiago sortu behar dira.**

Honetaz gain, Mahai Negoziatzailean Administrazioak Haurreskolak Partzuergorako 14 milioi euro gehiago bideratuko zirela esan zigun eta dokumentua aztertu ondoren, 11 milioi euro baino ez direla bideratuko esan dezakegu.

EAJk, PSEren laguntzaz, jada 2024ko aurrekontuak abenduan onartu zituen. Argi dago orain arte Haurreskolak Partzuergoko doakotasunaren gaia kanpaina egiteko erabili dutela, baina oraindik horren ondorioei irtenbiderik emateko ez dute ganorazko erantzunik eman. Are gehiago, Mahai Negoziatzailean Administrazioaren mehatxua Haurreskolak Partzuergoaren zerbitzua mugatzea izan zen, lanpostuen zerrendaren handitzea (aurrekontuekin batera) izan beharrean.

Bitartean, haur hezkuntzako 1. zikloko 2. urteko gelak dituzten ikastetxe pribatuek %60ko finantzaketa izatetik %100era pasa dira, ituntzearen ondorioz. Zentro pribatuen

finantzaketa bertan behera geratu behar dela aldarrikatzen jarraituko dugu, diru publikoa Haurreskolak Partzuergo zerbitzu publikorako izan behar delako.

STEILAS sindikatuak aurrekontuei lotutako eskaerak berresten ditu beste behin ere: Haurreskolak Partzuergoko lanpostuen zerrenda handitzea (hezitzaile eta kudeaketa langileena) eta 2023-24 Haurreskolak Partzuergoko haurren onartze araudian inposatu zituzten murrizketak bertan behera uztea. ■

Los centros privados con aulas de 2 años de 1º ciclo de educación infantil han pasado de tener una financiación concertada del 60% al 100. Seguiremos reivindicando la suspensión de la financiación de los centros privados, porque el dinero público debe estar destinado al servicio público que ofrece el Consorcio Haurreskolak.

El sindicato **STEILAS** reitera una vez más sus demandas presupuestarias: incrementar la relación de puestos de trabajo del Consorcio Haurreskolak (personal educativo y de gestión) y suprimir las restricciones que impusieron en el reglamento de admisión de alumnado del Consorcio Haurreskolak 2023-24.



Haurdunaldia eta baja

Noiz hartu baja?

Zergatik hari eman diote eta niri ez?

Haurdunaldia, batez ere lehenengo umearen kasuan, ilusioz eta beldurrez bizitzen dute ama gehienek. Kezka eta ezjakintasun horretan, behin eta berriz errepikatzen den galdera bat dute guztiek amankomunean: noiz dagokit baja hartzea? Galderak erraza ematen duen arren, erantzun bateraturik ez dago; 3 faktorek barneratzen duten parametroen arabera erabakiko baitu medikuak baja eman ala ez:



1. Amaren ezaugarri intrintsekoak

Adina: Zenbat eta urte gehiago izan emakumeak, arrisku egoera handiagoa da.

Aurretiatzko gaixotasun kronikoak (asma, hipertentsioa, gaixotasun autoinmuneak...): hauen presentziak ere arriskua emendatzen du.

Agente biologiko hauentzat serologia negatiboa izateak ere arriskua igotzen du: errubeola, elgorria, parotidisa, zoster Barizela, B19 parvovirusa eta zitomegalobirusa. Nekazaritza eta abeltzantza munduko lanbide heziketako langileentzat, bruzela, toxoplasma eta Q sukarraren antigorputzak dituzten ere behatu beharko da.



2. Lanpostu motaren ezaugarriak

Hezkuntzako lanpostu guztiei buruz hitz egitea zaila denez, zenbait adibide baino ez ditugu aipatuko: Emakume haurduna haur hezkuntzako 0-3 urte bitarteko haurrekin lanean baldin badago, tailerrean makineria pisutsuaren manipulazioa eskatzen duten Lanbide Heziketako moduluak ematen baditu, edo jarrera disruptiboa adierazten duten ikasleekin hartu emanean badago (ZIG gelako irakasle edo hezitzaileak esaterako), arriskuak gora egiten du.

3. Haurdunaldiaren beraren izaera

Haurdunaldiaren astea: Aste konkretu batzuk zahargarriagoak dira, esate baterako lehen hiruhilabetekoak.

Sabelean dagoen ume kopurua: ume kopuruarekin batera arriskuak gora egiten du.

Haurdunaldia ugalketa-tratamendu bidezkoa izan bada. *Per sé* ez luke eraginik izan beharko baina arriskuaren plusa zenbatzeko kontabilizaten du.

Aurretiarekin amak abortoak izan baldin baditu.

Odol jarioekin baldin badago emakumea.

Ondoeza eragiten badio haurdunaldiak: botaka, nekea, bizkarreko mina, edemak, hipotentsioa...



Especialmente en el primer embarazo se tiene la duda de cuándo corresponde la baja. La baja por embarazo como tal no existe, la baja se da por los malestares y dolores que son consecuencia del embarazo. Nuestra o nuestro médico de cabecera valorará dar la baja o no según tres factores: características intrínsecas de la madre (edad, historial médico, etc); características del puesto de trabajo (infantil, primaria, secundaria, FP, etc); y características del embarazo (semana de gestación, parto múltiple, existencia de abortos previos, etc).

INDARKERIA BIKARIOA

Emakumeonganako indarkeria. Berrero ere emakumeonganako indarkeria gure artean. Oraingoan, gainera, bere adierazpenik gogorrenetarikoa azaldu du gure gizartean, indarkeria bikarioa hain zuzen.

Sonia Vaccaro psikologo argentinarrak 2012. urtean proposatutako kontzeptua da indarkeria bikarioarena. Indarkeria mota honek umeak deshumanizatu eta objektu gisa erabiltzen ditu emakumeari min emateko. Umea da min emateko erabiltzen den instrumentua; ama ordezkatzeko duena.

Azken asteetan horrelako kasu baten berri izan dugu Euskal Herrian; hamabigarrena 2003. urtean zenbaketa egiten hasi zenetik.

Gizon batek 7 urteko bere semea besoetan hartu eta amildegira salto eginez bere buruaz beste egin zuen, umea erahilez. Ez zen pentsatu gabeko ekintza izan, ez zen kasualitatea izan; amari ahalik eta min handiena emateko nahiak bultzatuta eragindako ekintza izan zen. Emakumea zen mindu nahi zena, minaren helburua; eta min hau hirugarren pertsona baten bitartez eragin zaio, kasu honetan semearen bidez.

Gertakariak hedabideetan izan zuen isla onartezina da. Zenbait hedabidetan nabarmendu zen gizonaren aurkako salaketarik ez zegoela eta maiz irakurri ahal izan genuen gizon arrunta zela, are, atsegina ere bazela. Hedabideetan azpimarratu zuten depresioaren eraginez egindako ekintza izan zela, banaketa prozesua gainditu ez izanaren ondorioa. Biolentzia bikarioa hori baino askoz ere gehiago da. Emazte izandakoari neurrigabeko mina eragiteko nahiaren ondorio da, emakumeari bizi osorako zigorra ezartzeko nahiaren ondorio da.

Sistema heteropatriarkal eta justiziarik gabeko honek ahalbidetzen duen indarkeria da. Justiziak, arlo honetan ere, hutsunea du eta gizartearen antolaketa sexista eta matxista erreproduzitzeko bidea irekitzen du.



Feministok nazkatuta gaude gizarte heteropatriarkal honen biziraupenerako sistemak martxan jartzen duen makinaria guztiarekin, honek bultzatzen dituen balioekin eta hauek erreproduzitzen segitzeko egituratuta eta antolatuta dagoen sistema judizialarekin; hedabideek ideia horiek zabaltzen dituztenean egiten duten zurikeria ariketarekin; emakumeak zokoratzen eta heriotzera kondenatzen gaituen sistemarekin.

Etorkizuna beste modu batekoa izan daitekeelako eta izan behar duelako goazen emakumeak batzera, antolatzaera, ahalduzera eta elkar zaintzera. Zaintza sistema publiko eta feminista batek dena irauli dezakeelako, merezi duelako. ■

Otra vez la violencia vicaria en nuestra sociedad. Una violencia que utiliza a las hijas e hijos como instrumento para dañar a la madre, para condenarla a un sufrimiento extremo durante toda la vida.

Estamos hartas de toda la maquinaria que tiene en marcha este sistema heteropatriarcal, de los valores que transmite y del sistema judicial que perpetua la reproducción y difusión de estos, de cómo recogen y blanquean los medios de comunicación este tipo de noticias, del sistema que arrincona y mata a las mujeres.

GABON ONAK?

Gabonak igaro berri dira, akaso urteko egunik antzeztuenak eta kontsumistenak. Kanean argiak piztu, hiriak merkatuz hornitu eta aurpegiak irribarre batekin mozorrotzeko egunak izan dira. Ume guztiek eskutitz bat idatzi diote Olentzerori, haur zintzoaren irudiaz, amesten duten oparia eskatuz. Batzuk eskatutakoa jaso dute Olentzeroren eskutik, beste batzuk beste zerbait, eta arrazoi ezberdinengatik badira deus jaso ez dutenak ere, etxean dirurik ez... Baina kasu gehienetan denek Olentzerok zerbait zoragarria ekarri diela antzeztu dute, txikitatik ikasten baitugu berdinak garela antzezten. Gabonetatik bueltan, denek daukate kontatzeko istorio polit bat, erreala edo asmatua, baina polita, eta nola ez besteen oso antzekoa, bederen.

Olentzero izan da beraien etxeetara jostailuak eraman dituena, Mari Domingiren laguntzarekin. Batzuentzat Mari Domingi Olentzeroren laguntzailea izango da eta beste batzuentzat aldiz, bere neska-laguna. Baina jendartean bezala protagonista eta garrantzia duen pertsonaia gizona eta zuria da, Euskal Herriko ume guztien erreferente heteroarautua dena. Mari Domingiren pertsonaia berdintasunaren izenean asmatu zela pentsatzen dute askok, baina Olentzero marikoia dela ez pentsatzeko ere sortu zenaren susmoa daukagu.

Familia tradizionalak, ohitura tradizional baten aitzakiarekin elkartzen dira mahai inguruan, elkarrekin jan, edan, hitz egin eta dena bere lekuan dagoela ziurtatzeko. Etxeko adinduak jartzen dira aitzaki denok heteroarauaren barruan sartzeko, aiton-amonei ilusioa egiten omen dienaren ustetan. Etxeko txikiak ere ospakizunaren ardatz bilakatuz eta egin beharreko bidea ondo ikasiz familia eredugarria zer den barneratzen dute, zuria, kristaua, klase ertainekoa eta heterosexuala.





Jostailuen katalogoak nonahi topatzen dira, erdia urdina eta erdia larrosa, panpinak eta kotxeak, jolas aktiboak eta pasiboak, mugimenduzkoak eta estatikoak, baita estetikoak ere, azken hauek hipersexualizazio arriskutsu baterantz bideratutakoak izan daitezkeela burutik pasa ere egin gabe. Jostailuak non aukeratu erakusten zaie, genero arazorik ez izateko, hau da, marikak, bollerak, lumadunak edota transak izan ez daitezzen.

Olentzero eta Mari Domingi bere astotxoarekin eskola guztietara heldu dira irrifartsu, jostailuz eta ipuinez betetako zaku batekin, baita ikatz zakukada handi batekin gaizki portatu diren haurrentzat, opariak merezi dituzten eta merezi ez dituzten haurrak daudelako, ongia eta gaizkia zer den denok argi ikasten dugulako txikitatik. Arauaren barruan edo kanpoan egoteak ondorioak dakartza, saria eta zigorra, ikatza eta oparia.

Eskola denona eta denontzat baldin bada, bete dezagun zaku hori arnasgunez, heterodisidentez, LGTBQ+ pertsonaiak dauden ipuinez, larrosa eta urdinetik at ateratzen diren

jostailuz, pobrez, lodiz, protagonista anitzez ... Hitz egin dezagun ikasleekin etorkizunean izan ahal direnaz, kontatu diezaiegun bizitza eredu desberdinak daudela eta denak direla zilegiak, eta nola ez, erakutsi diezaiegun gabonak ospatzeko eta ez ospatzeko ere milaka aukera daudela, gustatzen ez zaizkien ereduak eraldatzeko daudela eta neguaren etorrera bero bat merezi dugula. ■

"...Hablemos con el alumnado de lo que pueden ser en el futuro, contémosles que hay modelos de vida diferentes y que todos son legítimos... Enseñémosles que también hay miles de oportunidades para celebrar y no celebrar la navidad, que los modelos que no les gustan, están para transformarse".

Escuelita libre, Maputxe Herria



Maputxe Herrian duela lau urtetik abian dugu Escuelita Libre proiektua. Bertan, Kalafquen lakua-
ren eta Rucapillan sumendiaren inguruko lurretan,
koneltumak antolatzen dituzte, mapuzungun hiz-
kuntza ikasteko eta maputxe kulturaren sentsibili-
zazioa lantzeko barnetegiak.

Aurten mapuzungun hizkuntzan 3 jardunaldi anto-
latu zituzten, helduentzat zein haurrentzat.

Era berean, emakumeek maputxeen komuni-
tatean duten garrantziari buruzko hausnarketa-
jardunaldiak egin zituzten, emakumeen artean
elkarrizketak sortu ziren, komunitatean adin han-
diagoko emakumeak buru zirela. Bereziki haur-
dunaldiari eta hazkuntzari buruzkoa izan zen.

Euskal Herrian, proiektu honen erakusketa egin
zen, maputxeen jokoen bidez, Barañaingo Alaitz
ikastetxeko balio sozial eta zibikoaren klaseetan,
hizkuntza gutxituen balioaz sentsibilizatze-
ko helburuarekin.

Unitate didaktikoa eta material didaktikoa esku-
ra ditugu, beste ikastetxe batzuetan erabili ahal
izateko. Inork interesik baduzue, jarri gurekin
harremanetan.

Proiektuak hurrengo urterako duen helburu oro-
korra maputxeen kausarekin sentsibilizatze-
ko jarduerak egitea da, Villarrica sumenditik gertu
dauden erresistentzia taldeekin. Lehenetsuna
emanen zaie emakume maputxeei zuzenduta-
ko hileroko saioei eta haien seme-alabak ma-
putxeen hizkuntzan trebatzea izanen da bidea,



lurraldearen berezko jakintzak herri txikietan sus-
tatu eta zabalduz, eta partehartzaileak kontzien-
tziatuz eta lurraldearentzat aurrera begirako es-
trategiak bilatuz. ■

Bestetik, datorren urtarrilaren 25ean Donostian
gingo dugu urteroko asanblada.

Bertan, abian ditugun proiektuen balorazioa
gingo dugu eta aurten abian ditugun 7
proiektuetatik helarazitako dokumentazioa
errebisatu, proiektuen koordinatzaileekin hitz
egin... haiekin egoteko aukera izango dugu.
Interesa duzuenok bertaratu!

Eilastasuna web orrian proiektu guztiei buruz
informazio gehiago: eilastasuna.steilas.eus

**Izan zaitez Eilastasuna funtsaren kide
hilabetean 5€ren truke!**



Zorionak errigora!

Elikadura burujabetzaren eta auzolanaren bitartez euskara bultzatzen duen herri ekimenak aurtengo udazkeneko kanpainan lortutako etekin ekonomikoak ez dira nolana hikoak izan eta Euskal Herrian, guztira, 14.000tik gora saski eskatu dira. Hau da, Nafarroako erdi eta hegoaldeko euskalgintzara 185.000 eurotako ekarpena egingen zaio oraingoa.

Euskal Herria oinarri eta auzolana lanabes dituen ekimen herritarra da Errigora. Nafarroa hegoaldea du ardatz eta euskara ofiziala ez den zonaldean eragin nahi du, eremu horretakoak propio diren elikagaiei Euskal Herrian bidea emanaz, euskaratik, euskararako eta euskaraz.

Ekimenak hamar urte bete ditu aurten. "Hamar urte, bete-bete" lema erabili dute udazkeneko kanpainaren barruan. ■

errigora
10 urte bete-bete



Tortura. ERREPARAZIORAKO URRATSAK

Iragan azaroaren 17an, Nafarroako Torturatuen Sareak Nafarroako Gobernuarekin elkarlanean, Torturari buruzko Nazioarteko II. Jardunaldiak antolatu zituen.



Torturaren biktimek, eremu politikoan eta sozialean errehabilitaziorako eta aitortzarako duten eskubideaz, torturatuen biktimei eta senideei ematen zaien arreta psikosozialaz, eta motibazio politikoak eragindako torturaren ondorengo erresilientziaz eta erreparazioaz aritu ziren nazioarteko hainbat adituk.

Nafarroan torturak izandako presentziaren berri eman eta hainbat hamarkadatan gertatutakoa argitzea izan zuten helburu. Itzaletik argira igarotzeko bide luze horretan, erreparazioaren bidea hartu nahi du Nafarroako Torturatuen Sareak. Torturak herrialdean sortutako zauriak itxi nahi dituzte, eta tratu txarrek izandako eraginari garrantzia eman. ■





STEILAS sindikatua
@STEILAS

Herritarren eskubideen kaltean, botere judiziala hizkuntza-politikaren joko arazak aldatzen ari dela salatuko dugu bihar, @kontseiluaik eta @BAGERAikarteik deitutako elkarretaratzean.

Euskaraz bizi nahi dugu eta ez dugu eskubide murrizketarik onartuko EUSKARAZ BATI!

OLDARRALDIAREN AURREAN
EUSKAREKIN BAT EUSKARAZ BAT

ELKARRETARATZEA
URTARRILAK 12
18:30
ALDERDI EDER DONOSTIA

"K" KONTSEILUAREN KONTSEILUA
bagera Euskarazaren Elkartea

adm.euskaraz.taidea
@admeuskeraztaid

Iruñean euskarazko haur eskolak behar ditugu

@IrunekoEuskalg : @irunerrikoak @ArturoCampion @SortzenElkartea @ELANafarroat @LABnafarroat @STEILAS_ @admeuskeraztaid

berria.eus/iritzia/zuzend...

steilas_sindikatu

Le gusta e joaka_pic y 6 personas más

steilas_sindikatu Atzo, @kontseilua ik deituta, Nafarroako Parlamentuaren aurrean elkartu ginen 1986ko Euskararen Legeak ezarritako zonifikazioa salatu eta ofizialtasuna eskatzeko.

Garaia da zatiketarekin bukatzeko eta euskara Nafarroa osora zabaltzeko!

#EuskaraOfizialaNafarroaOsuan
#Ofizialtasuna

STEILAS sindikatua
@STEILAS

Urtarrilak 13 16:00etan Bilbo, La Casilla

KONPONBIDERAKO Giltzak
LLAVES PARA LA RESOLUCIÓN

URTARRILAK 13 ENERO - BILBO - 1600 - LA CASILLA

steilas_sindikatu

27 Me gusta

steilas_sindikatu Gaur, Hezkuntza Lege berria onartuko den egunean, Euskal Eskola Publikoak Harro topaguneak emandako prentsaurrekoan egon gara.

#Hezkuntza lege honi ez !!

STEILAS sindikatua
@STEILAS

Greba Feminista Orokorra: egun historikoa, prozesu historikoa.

Prentsaurrea

steilas.eus/2023/12/01/a30...

steilas_sindikatu

15 Me gusta

steilas_sindikatu Yala Nafarroa con Palestina plataforma aurkeztu dugu gaur, zeintan sindikatu zein eragile sozial desberdinek parte hartzen dugun.

Abenduan, Gazako genozidioa gelditzeko, bi mobilizazioetan parte hartzera dei egiten diogu jendarte osoari.


#NafarroaPalestinarekin

Nafarroako hezkuntza publikoko berriak jaso nahi badituzu, gehitu kanalera!
Zabandu interesa izan dezaketen inguruko lagunen artean!



Si quieres recibir información sobre la educación pública navarra, ¡únete al canal!
¡Difunde entre gente cercana a la que le pueda interesar!

https://t.me/STEILAS_Nafarroa



NOR

Irati Goikoetxea Asurabarrena
1945 Argitaletxea • 2023

14 urteko bost gaztetxo ditu ardatz eta euskarri eleberriak. Aurrez aurreko, zeharkako era begietara begirako begiradak korapilatuko dituzte, nahita eta nahi gabe. Begirada itsuak izango dira asko, mutuak beste asko, zalantzez beteak gehienak. Erakutsi eta irakutsi ez dietena ispiluaren aurrean ezagutuko dute. Erantzunik gabeko galdera asko zamatuko ditu bakardadeak eta galderarik gabeko erantzun asko saretuko taldeak.

Nor izan, ikusia, onartua. Lehia, beldurra, identitatea, iraina, mina, ezintasuna, adiskidetasuna... horiek dira, besteak beste, istorioari tira egiten dioten hariak. Gainerakoek gudan duten eragina, guregatik garen edo besteengatik, gurekin garen edo besteekin. Nork trazatzen duen nor.

Liburuaren azken zatian bizitzaren esentzia mamitzeko galdera sorta bat dago atalka sailkatua. Hausnarketa filosofikoa ezinbestekoa baita zer, zein eta nor garen jakiteko. ■

Ez dadin bizitza eten

Miren Aranguren, Ainara Santamaria,
Monika Mendiberri

Txalaparta/Iratzar • 2023

Zaintza lanetan inplikaturik dauden norbanakoei entzunda Emagin Elkartearen egindako lanetik abiatuta, azken urteotan mugimendu feministaren aldarrien erdigunean egon den gaiak hausnartu dute hiru autoreek. Betiere, askotariko faktoreak kontuan hartuz eta bi ardatz hauen arabera: ikuspegi feminista eta ezagutza kokatua. Izan ere, zaintzaren inguruan sortzen den bereizkeriatik eta gorputzetik ez bada, kamutsa izanen da hartaz esaten dena. Egungo ereduak dituen mugak eta geruzak agertzean eta haren konplexutasuna ulertzean, lanen banaketa desorekatua gaingitu eta bizitza erdigunean kokatuko duen gizarte antolaketa bat osatzeko bidean has gaitzke, ez dadin inoren bizitza eten. Alta, helburu horrek errotoiko aldaketak egitea eskatzen du, gure mundu ikuskera beste era batera definitzea. Horretarako, ezinbestekoa izanen da gaur gara baina zaugarriago, elkarren mendekoago eta eko-mendekoagoak agertzea. ■



Gora Euskal herrientsak

(Komikia)

Asisko Urmeneta
Herrima • 2023

2023.ean urteurren bikoitza bete da: 125 urte joan dira Kapitolina Buztintze Larrondo uxuetarraren "Konpendio"tik,

baita Jule Fernandez Zabaleta iruindar maistraren jaiotzatik ere.

Bistan da kulturaren transmisioan emakume aitzindarien zerranda zabalagoa dela, eta komiki-album hau omenaldia ere bada kolektibo haiei; Emakume Abertzale Batza, Begiraleak eta Euskal Eskolak gauzatu zituzten maistra kontzienteei, errientsa herrizale haiei.


Hala nola Kapitolina Buztintze Larrondo -Uxue, 1867-, Malena Jauregiberri Erbin -Aloze, 1884-, Jule Fernandez Zabaleta -Iruñea, 1898-, Katalina Alastuei Garaikoetxea -Iruñea, 1899-, Elbira Zipitria Irastortza -Donostia, 1906-... ■

KARENA

Alaine Agirre Garmendia
elkar • 2021

Amatasunarekin loturiko hainbat gai, normalean isilpean eta ezkutuan geratzen direnak agerira dakartza Alaine Agirrek, intentsitatez eta hunkiduraz idatzirik eleberri honetan: Lagundutako Ugalketa teknikak, horren ondorio fisiko eta psikologikoak, bikoteko batek guraso izateko besteak baino gogo gehiago duenean sortzen diren arrakalak, amarenganako errespeturik gabeko erditzeak, nahi gabeko abortuak eta horren doluak...

Egileak ohi duen indarrez eta pasioz kontaktzen digu Sara Mendizabal protagonistaren ibilbidea, lirismoz eta musikalitatez, minetik edertasuna sortuz, gorputzaren barrutik unibertso oso bat eraikitzen. ■





www.steilas.eus

Araba

Manuel Iradier 40 • 01005 **Gasteiz**
☎ 945 141 104
araba@steilas.eus

Bizkaia

Jose Maria Eskuza 1, 1. esk. • 48013 **Bilbo**
☎ 944 100 298
bizkaia@steilas.eus

Gipuzkoa

Gaztela kalea 16-18, Behea • 20015 **Donostia**
☎ 943 466 000
gipuzkoa@steilas.eus

Nafarroa

Joakin Beuntza 4-6, behea • 31014 **Iruñea**
☎ 948 212 355
nafarroa@steilas.eus



Irakaskuntzako aldizkaria